

Newsletter

Atal honetan, Euskadiko Turismo Behatokiaren newsletter-ak ikus ditzakegu, baita horiek guztiak biltzen dituen historikoa ere.

19. Newslettterra Iraila 2025

Enfokatur Euskadiko Behatoki Turistikoak Euskadiko eskaintza eta eskari turistikoari buruzko koiuntura-adierazle nagusien azterketa laburra egin du; **2025. urteko metatua, eta 2025eko ekaina eta uztaillekoa**, baita araututako **turismo-ostatu guztiei buruzkoak ere**.

2025EKO URTARRILA-UZTAILA METATUA



2025. urteak **balantze positiboa metatu du adierazle nagusietan**, 2024ko epe berarekin alderatuta: eguneko plaza-eskaintzan **+%4,7** (58.820), **turisten sarreretan +%5** (2.785.116), gaudi-dietan **+%4,6** (5.785.243), eta **plazen okupazio-mailan +%0,8** (39,90%).

Ostatu-tipologiei dagokienez, **kanpinek eta turismo-aterpetxeek jaitsierak izan dituzte eskari-adierazle guztietan**, gainerako ostatu-motek emaitza positiboak izan dituzten bitartean. **Landa-ostatuak, berriz, %1,5eko jaitsiera metatu dute eguneko plaza-eskaintzan**.

**Helmuga guztiek eguneko plaza-eskaintza handitu dute, eta gorakada izan dute** bai **gaudi-dietan** bai **plazen okupazio-mailan**, 2024ko epe berarekin alderatuta. Turisten sarreretan, **Donostiak %0,2ko jaitsiera izan du, eta Vitoria-Gasteizek %3,4koa**.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2025EKO URTARRILA-UZTAILA METATUA

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

| JATORRIAK        | SARRERAK 2025 vs 2024 | GAUALDIAK. 2025 vs 2024 |
|------------------|-----------------------|-------------------------|
| Madrilgo Erk.    | %7 ↑                  | %7 ↑                    |
| Euskadi          | %3,5 ↑                | %2,9 ↑                  |
| Frantzia         | %3,3 ↓                | %3,7 ↓                  |
| Katalunia        | %1,7 ↓                | %1 ↓                    |
| Erresuma Batua   | %28,3 ↑               | %23,9 ↑                 |
| Estatu Batuak    | %12,3 ↑               | %15,8 ↑                 |
| Alemania         | %7,8 ↑                | %10,4 ↑                 |
| Gaztela eta Leon | %1,3 ↑                | %1,8 ↑                  |
| Andaluzia        | %4,5 ↑                | %5,9 ↑                  |
| Valentziako Erk. | %3,7 ↑                | %2,9 ↑                  |

**Turisten** erdia baino gehiago **merkatu nazionaletik** dator (%52). Hala ere, **nazioarteko merkatuaren** presentzia apalagoa izan arren, **hazkunde handiagoa izan du (%+6,6)**, 2024ko epe berarekin alderatuta; **merkatu nazionalak ere %3,3ko hazkundera izan du**.

**10 merkatu igorle nagusien artean lau nazioarteko merkatu daude: Frantzia, Erresuma Batua, Estatu Batuak eta Alemania. Jaitsierak soilik Frantziako eta Kataluniako merkatuetan erregistratu dira.**

Sailkapenaren buruan daude, hurrenez hurren: **Madrilgo Erkidegoa (%12,4), barne-merkatua (Euskadi) (%10,3), Frantzia (%8,8), Katalunia (%7,2) eta Erresuma Batua (%4,9).**

EKAINA 2025



2025eko ekainean, **eguneko plaza-eskaintza %4,2 handitu da** (60.040), 2024ko hilabete berarekin alderatuta. Ostatu-eskaeraren **adierazle guztiak igo egin dira: sarrerak +%11** (481.773), **gaualdiak +%9** (1.003.657), eta **plazen okupazio-maila** +%1,1 (45,90).

Ostatu-tipologiei dagokienez, **landa-ostatuak soilik eskaini dituzte plaza gutxiago eguneko** (-%0,4). **Turismo-aterpetxeek, berriz, hilabete hau eskari-adierazle guztietan balio negatiboekin itxi dute.**

Ekaineko **balantzea positiboa izan da helmuga guztientzat**, 2024ko ekainarekin alderatuta.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2025EKO EKAINA

10 MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2025EKO EKAINA

| JATORRIAK        | SARRERAK 2025 vs 2024 | GAUALDIAK. 2025 vs 2024 |
|------------------|-----------------------|-------------------------|
| Madrilgo Erk.    | %15,1 ↑               | %12,2 ↑                 |
| Euskadi          | %2,3 ↓                | %7,7 ↓                  |
| Katalunia        | %14,6 ↑               | %10,1 ↑                 |
| Estatu Batuak    | %24,1 ↑               | %29,6 ↑                 |
| Frantzia         | %1,1 ↓                | %5,2 ↓                  |
| Erresuma Batua   | %16,2 ↑               | %13,3 ↑                 |
| Alemania         | %15,7 ↑               | %11,9 ↑                 |
| Gaztela eta Leon | %8,6 ↑                | %15,4 ↑                 |
| Andaluzia        | %22,8 ↑               | %15,2 ↑                 |
| Valentziako Erk. | %30,1 ↑               | %30,3 ↑                 |

**Nazioarteko merkatuak merkatu nazionalak baino kuota handiagoa du:** %52 eta %48, hurrenez hurren. Bi merkatuak hazi egin dira 2024ko ekainarekin alderatuta; hala ere, nazioarteko merkatuaren hazkundera **handiagoa izan da (+%11,5)**, eta **merkatu nazionalak +%10,4ko** igoera izan du.

Ekaineko 10 merkatu igorle nagusien artean, gehienek **hazkundeak izan dituzte. Jaitsierak soilik barne-merkatuan** erregistratu dira (%–2,3 sarreretan eta %–7,7 gaudi-dietan), eta Frantziako merkatuan (%–1,1 sarreretan eta %–5,2 gaudi-dietan). Ekainean, 10 merkatu nagusien artean lau merkatu nazioarteko daude, hurrenkera honetan: **Estatu Batuak, Frantzia, Erresuma Batua eta Alemania**.

Sailkapenaren buruan daude, ordena honetan: **Madrilgo Erkidegoa (%10,9), barne-merkatua (Euskadi) (%8,7), Katalunia (%7,2), Estatu Batuak (%7,2) eta Frantzia (%6,2).**

2025EKO UZTAILA



2025eko **uztailan**, 2024ko uztaileko datuekin alderatuta, igoerak **erregistratu dira eguneko plaza-eskaintzan (+%3,6;** 66.038), **sarreretan (+%1,3;** 542.278) eta **gaudi-dietan (+%0,8;** 1.265.791). Aitzitik, plazen okupazio-mailak **behera egin du, %–2,7** (57,40%).

**Uztailan, turismo-ostatueta plaza-eskaintzak oro har gora egin du, landa-ostatuak izan ezik, horiek %–0,1eko jaitsiera izan baitute.** Aitzitik, plazen **okupazio-mailak behera egin du** ostatu mota guztietan; **landa-ostatueta aldiz, okupazio-maila %3,7 hazi da. Turismo-aterpetxeek eta kanpinek jaitsierak izan dituzte bai turisten sarreretan bai gaudi-dietan. Landa-ostatuak ere jaitsiera izan dute turisten sarreretan.**

**Helmuga gehienek eguneko plaza-eskaintza handitu dute, Donostiaren (%–0,1) eta Arabako Errioxaren (%–1,9) jaitsiera arinak salbuespen direnla. Donostiak jaitsiera izan du sarreretan (%–1,6), Euskal Kostaldeak plazen okupazio-mailan behera egin du pixka bat (%–0,3), eta Vitoria-Gasteizek jaitsierak izan ditu bai sarreretan (%–11,9), bai gaudi-dietan (%–3,7), zein plazen okupazio-mailan (%–4,6).**

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2025EKO UZTAILA

10 MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2025EKO UZTAILA

| JATORRIAK      | SARRERAK 2025 vs 2024 | GAUALDIAK. 2025 vs 2024 |
|----------------|-----------------------|-------------------------|
| Madrilgo Erk.  | %5,8 ↑                | %5 ↑                    |
| Frantzia       | %1,9 ↓                | %0,6 ↓                  |
| Euskadi        | %0,6 ↑                | %0,4 ↓                  |
| Katalunia      | %8,3 ↓                | %11,6 ↓                 |
| Estatu Batuak  | %15,8 ↑               | %19,4 ↑                 |
| Erresuma Batua | %14,7 ↑               | %17,1 ↑                 |
| Herbehereak    | %3,9 ↑                | %3,4 ↑                  |
| Alemania       | %0,5 ↑                | %3,2 ↑                  |
| Belgika        | %4,6 ↑                | %0,5 ↑                  |
| Andaluzia      | %3 ↓                  | %2,5 ↓                  |

**Nazioarteko merkatuak merkatu nazionalak baino kuota handiagoa du:** lehenak %57, bigarrenak %43. **Nazioarteko merkatuaren hazkundera handiagoa izan da (+%6,7)**, eta **merkatu nazionalak +%3,3ko** igoera izan du.

10 merkatu igorle nagusien artean **bost nazioarteko merkatu daude: Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua, Herbehereak eta Alemania. Merkatu gehienek urte arteko hazkundeak izan dituzte** bai sarreretan bai gaudi-dietan; **salbuespen dira Frantzia, Katalunia eta Andaluzia**.

Sailkapenaren buruan daude, hurrenkera honetan: **Madrilgo Erkidegoa (%11,6), Frantzia (%8,3), barne-merkatua (Euskadi) (%7,1), Estatu Batuak (%6,3) eta Katalunia (%6,3).**